



Hezkuntza etorkizuneko jendartea kohesionatzeko tresna: euskal curriculumaren ber-irudikatzea



19.Jul 2023

Cod. H19-23

Mod.:

Face-to-face

Edition

2023

Activity type

Summer course

Date

19.Jul 2023

Location

Cité des Arts. Baiona

Languages

Basque French

Academic Validity

10 hours

Organising Committee

Fundación
BBVA



Description

Badira ia 20 urte “derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma” eraiki zela; erreferentea izan dena euskara eta euskal kultura ardatz izatea nahi izan duen hezkuntza sisteman. Erreferentea ere euskal hezkuntza komunitatearen sarea elkar hartzen duen prozesu zabal eta sakon batez sortu eta eraiki zelako. Erreferentea, etorkizuneko Euskal Herriko jendartearen premiei aurre hartzeko nahia bilatzen zuelako; finean, herri ikuspegi batetik eraiki zelako.

Egun, jendartean gertatzen ari diren aldaketa anitzek eta joera globalen eraginek medio, hainbat eragile eta pentsamendu gune jarri dute berriz erdigunean euskal curriculumaren inguruko gogoeta egitearen premia.

Ikastaro honen helburua horri buruzko gogoeta partekatua egitea izango da. Euskara eta euskal kulturaren transmisioa hezkuntzan, Euskal Herriko kohesiorako tresna hausnarketarako ardatz hartuta, ikastaro honetara “euskal curriculumaren ber-kontzeptualizazioa gaurko Euskal Herriaren kohesiorako eta biziberritze baterako tresna gisa” ekarriko dugu aztergai. Horretaz gain, mugaz gaindiko lankidetzeta eta lurralde kohesioa helburu, Euskal Herri mailako egungo eta etorkizuneko balizko egituraketak izango ditugu eztabaidagai.

Ikastaro honekin gaia aztertzen eta biziberritzen ari diren Euskal Herriko lurralde guztietako eragileak eta, honetan ikerkuntzatik eta teoriatik ekarpenak egin ditzaketen pertsonen bilgunea izatea nahi dugu, gogoeta partekatua burutzeko eta eztabaida zabaltzeko helburuarekin.

Ikastaroa Eusko Ikaskuntzak abian duen hezkuntzarekin lotutako Euskal Herri mailako herri-hausnarketaren prozesuan mugarri nagusi bat da. 2021an hasiera eman zitzaion prozesu parte-hartzailean zehar jasotako lehentasunezko gaiei eta horiei erantzuteko proposamenei adituen eta arituen ekarpenak jasotzea bilatuko dugu ere. Ikastaroarekin prozesuaren fase berri bat irekiko dugu; fase berri honetan, jasotakoaren adostasunak landuko ditugu Euskal Herri mailako hezkuntzarekin lotutako herri-ituna irudikatze eta, hurrengo mugarri nagusira eramango duguna: 2024ko udazkenean ospatuko den Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua.

Hezkuntzarekin lotutako zeharkako gai komunak ditugu euskal lurralde guztietan eta horien inguruko herri-hausnarketa bultzatzea da gure bide orria. Euskal Herriko jendartearen aniztasunaz jabetuta, euskara eta euskal kultura tresna garrantzitsuak dira identitate partekatuaren eraikuntzan eta, ondorioz, jendarteren eta lurralde kohesioan. Ikastaro honetan jasoko diren ekarpenak funtsezkoak izango dira bide orrian markatutako pausuei balio erantsia eskaintzeko.

Objectives

Euskal curriculumaren ber-irudizatzea gaurko eta etorkizuneko Euskal Herrian: lurralde kohesiorako tresna izateko kokatze berriak aztertzea.

Euskal Curriculumaren ber-irudikatzea bere dimentsio zabalean aztertzea (Derrigorrezko Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Unibertsitatea)

Mugaz gaindiko lankidetzeta eta lurralde kohesioa: Euskal Herri mailako egungo eta etorkizuneko balizko egituraketak aztertzea.

Euskal Herri mailako hezkuntzarekin lotutako lehentasunezko gaiei eta horiei erantzuteko proposamenei adituen eta arituen ekarpenak jasotzea.

In collaboration with



Program

19-07-2023

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:30	Presentation by the Director of the activity
	Ikastaroaren irekiera
	Beatriz Akizu Aizpiri Hur Gorostiaga Badiola
09:30 - 10:00	“Euskal curriculumaren ibilbide historikoa”
	Lore Erriondo Corostola
10:00 - 10:30	“Euskal curriculumaren ber-kontzeptualizazioa: gaurko Euskal Herriaren kohesiorako eta biziberritzeko tresna”
	Nora Salbotx Alegria
10:30 - 10:45	“Galderak eta solasa”
	Hur Gorostiaga Badiola
10:45 - 11:15	Break
11:15 - 11:45	“Hizkuntza gutxituak eta hezkuntza eleanitza. Euskara Euskal Herriko kohesio tresna?”
	Oihana Leonet Sieso
11:45 - 12:00	“Galderak eta solasa”
	Nora Salbotx Alegria
12:00 - 12:25	“Euskaraz sortzea pertsonaren eta herriaren garapen integralerako”
	Gotzon Barandiaran Arteaga
12:25 - 12:50	“Euskal curriculumaren ber-kontzeptualizazioa: Nafarroaren begirada”
	Irene López Goñi
12:50 - 13:55	“Euskal curriculumaren ber-kontzeptualizazioa: Iparraldearen begirada”
	Iban Thicoipe
13:15 - 13:30	“Galderak eta solasa”
	Nora Salbotx Alegria
13:30 - 14:30	Break
14:30 - 14:45	“Goizeko saioaren sintesia. Arratsaldeko saioaren aurkezpena”
	Hur Gorostiaga Badiola Nora Salbotx Alegria

14:45 - 00:00

“Mahai-ingurua: Mugaz gaidiko lankidetza eta lurralde kohesioa. Euskal Herri mailako hezkuntza egitura(k): zer egituratze maila daukagu? Zer egin genezake? Nondik abiatu?”

Zigor Ibarzabal Bastarrika
Anjeles Iztueta Azkue
Itziar Azkue Irigoyen
Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Directed by



Nora Salbotx Alegria

Nora Salbotx Alegria (Iruñea, 1973). Magisteritzan eta Psikopedagogian graduatua, Landa Eremuko Hezkuntzan aditu graduondokoa eta Hezkuntza eta Komunikazioan masterra. Mondragon Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasle aritutakoa, gaur egun Amaiurko eskola txikiko zuzendaritzan eta maistra lanetan ari da. Hik Hasiko aholkulari, Herri Hezitzaileen sareko kide, Sortzen, Plaza Hutsa eta bertze hainbat elkarte eta eragilerekin kolaboratzen du hezkuntza aferetan. Irakasleen formakuntzan aritzen da hizkuntza idatziaren didaktika, landa eremuko hezkuntza eta metodologi aktiboen ildoak jorratuz. Ama eta eskola txikiko guraso.



Hur Gorostiaga Badiola

Labortano. Tras cursar estudios de periodismo (Leioa) y correcciones europeas (Lille-Francia) fue jefe de la delegación de Iparralde de Euskaldunon Egunkaria (1994-2001). Fundador y director de Le Journal du Pays Basque (2001-2008). Actualmente es director de Seaska y miembro de la directiva de Euksal Herriko Ikastolen Elkarte. Directivo de la Confederación Vasca. Miembro de la Federación de 6 redes de enseñanza de inmersión en el Estado francés Eskolim, miembro de la dirección del ISLRF (Institut Supérieur des Langues de la République Française), miembro del Consejo de Desarrollo del País Vasco francés.

Teachers



Beatriz Akizu Aizpiri

Eusko Ikaskuntza



Itziar Azkue Irigoyen

UPV/EHU

Doctora en Ciencias Económicas y Empresariales. Profesora Titular de Universidad de la UPV/EHU, departamento de Economía Financiera I Profesora titular de la Facultad de Economía y Empresa - Sección Gipuzkoa. Experiencia académica universitaria de 30 años en Grado y Postgrado. Sus áreas de especialización son la contabilidad, la auditoría de cuentas y el ámbito de la Administración Pública. Es miembro de la Comisión de ADE Dual y tutora de prácticas en empresa. Así mismo, ha sido miembro de la Comisión Académica del Master de Gestión del Deporte (2018-2022) y, actualmente es Subdirectora Académica de los Cursos de Verano de la UPV/EHU. ORCID iD: <https://orcid.org/0000-0001-6688-2323>



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Hik Hasi



Gotzon Barandiaran Arteaga

Euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea eta plazaratzea iparrorratz, hainbat ekimenen sortzaile eta antolatzaile izan da: Bihotz Bakartien Kluba, Literatura Eskola, Ahotsenea, Literaturia, Jalgi ... Hainbat liburu plazaratu ditu: bi nobela (Errotik eta Gidariaren okerra), bi poema liburu (Arrakalak eta Katamalo) haur-literaturan ipuin ilustratu bat (Arrarotz) eta saiakera bat (Hitzen Ahairea) argitaratu ditu. Antzerkirako ere jardun du (Haritzaren azalera, Inorako bidaia eta Besaulkiak obretan). Diskogintzan eta kontzertuetan ere aritua da: Katamalo), Erantzi eta Plateruena zuzenean. Literaturaz berbetan literaturazaleen Larrabetzuko bilguneko arduraduna da, eta baita ere herri bereko Domekak Hori Bain kantaldi sortako arduraduna. 2008ko urtarriletik hasita hamar urtez Bizkaia Irratiako Irakurrieran saioko gidoigile eta esataria izan zen.



Lore Erriondo Corostola



Zigor Ibarzabal Bastarrika

Ikastolen Elkartea



Anjeles Iztueta Azkue



Oihana Leonet Sieso

Kutxabank



Irene López Goñi



Iban Thicoipe

Registration fees

FACE-TO-FACE

UNTIL 19-07-2023

[Cross-border Summer Courses](#)

0 EUR

Place

Aquitaine